

Legazpin, 2015eko maiatzaren 12an.

AURREKARIAK

I.- Legazpiko udalerrian Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren esku dago bertako ur-hornikuntza, udal saretik abiatuta.

Horregatik, bere egunean, indarrean dagoen Hiri-antolamenduko Plan Orokorrak udalerrriaren antolamenduan aurreikusi beharreko ur-hornikuntzako sare berri bat diseinatu zuen aipatu Kontsortzioak proposatu zituen irizpideekin bat etorriz; era berean, sare berri hori hirigintzako garapen berriak egin ahala egitea izango zela bideragarriena estimatu zen.

Gipuzkoako Ur Kontsortzioak, joan den 2010eko abuztuaren 5eko idatzian, eta indarrean dagoen Plan Orokorrean hasieran aurreikusitako konponbidearen aurrean, honakoa azaldu zuen: “epe ertainean”, kota egokian (479 kota) kokatutako 2.000 metro kubikoko depositu bakarrarekin eta Urtatzolaraino eta Urtatzolatik San Martin auzoko urbanizaziora egingo den hargune-adar batekin, bermatuta geratuko litzateke aurreikusten diren beharrei erantzungo dien ur-hornidura; halaber, bermatuta geratuko litzateke sutea gertatuz gero ere eta 48 orduko autonomia izango luke egungo eskariei erantzuteko”

Hau bezalako jarduketa batek, depositu berria ezartzeko kotarengatik eta haren edukiarengatik, udalerriko goiko hiriguneen hornikuntza bermatzen du, antzemandako beharrei erantzunez.

Guztiarekin bat etorriz, Legazpiko udalerrian ur-hornikuntzako sistema orokorra berriz definitzea planteatu zen deposituak zehazteari eta haien kokalekuari dagokionez; horrela, esandako kotan 2.000 metro kubikoko depositu berri bakarra eraikitzea aurreikusi da. Depositua Urtatzazar parkearen eremuan kokatuko da, Plan Orokorrean xede horrekin aurreikusitako kokalekuan eta baztertuta geratuko da San Martin eremuan depositu gehigarri bat ezartzeko aurreikuspena.

Bestetik, 2013ko azaroaren 14an Gipuzkoako Ur Kontsortzioak egin zuen txostenean jasotzen den guztia kontuak hartuta eta depositu berria egiteko aurreikusi diren kostu eguneratuak eta eraikitze-lanak bi fasetan egiteko proposamena aintzat hartuta; eta udaletxeko zerbitzu teknikoek eman dituzten argibideak kontuan hartu eta haiekin bat etorriz, berriro planteatu zen Legazpiko ur-hornikuntzako sistema orokorra gauzatzean jarduketa-eremu integratuen partaidetza-koefizienteen esleipena.

Horrela, Urtatza-zaharreko depositu berriaren gainean dagoen azkeneko aurreproiektuarekin eta hura eraikitzeke egingo diren obra osagarriekin bat etorriz, udaletxeko zerbitzu teknikoek eman duten informazioaren arabera, obren kontrata bakoitzeko aurrekontu totala, BEZA kanpo, 813.583,82 eurokoa da, bukaeran emango den kitapenaren kaltetan gabe. Diru-kopuru hori dokumentu hau egin aurretik aurreikusi zena baino zertxobait txikiagoa da (1.100.000 euro) eta, beraz, horrek proposamenaren bideragarritasuna berresten du.

- 30.1 JI	% 11,11	% 13,70
- 40.1 JI	% 40	% 49,34
- 45.1 JI	% 17,78	% 21,93
		Guztira: % 98,67

Oharrak:

- Udalak, fase honetan, bere gain hartuko luke gainerako % 1,33 ordaintzea.
- Modu berean, jarduketa-eremu integraturen bat gauzatzean eman daitekeen atzerapenaren ondorioz sortuko diren ordainketak ere behin-behinean bere gain hartu beharko lituzke edo haiek eskatu.

2. FASEA

Jarduketa Integratua	Partaid. Dok. 2012ko ekaina - Partaidetza berria bigarren fasean	
- 23.1 JI	11,11%	% 58,70
- 31.1 JI	8,89%	% 46,97
		Guztira: % 105,67

Oharra:

- Fase honetan Udalak lehenengo fasean egindako ordainketa berreskuratuko luke.

II. Jarduketaren bideragarritasunak garapen berrien gauzatzea koordinatzea exijitzen du eta, horrezaz gain, ur-hornikuntzari dagozkion zerbitzuen azpiegitura berria eraikitzea eskatzen du, Udalaren behin-behineko balizko esku hartzearen kaltetan gabe.

Horretarako, jarduteko ondorengo jarraibideak ezartzen dira, zerbitzuaren bideragarritasuna eta egungo abagunea kontuan harturik:

- Legazpiko Udalak bere gain hartuko du Urtatza-zahar parkean, lehenengo fase batean, depositua eraikitzeke kudeaketa. Depositua 1.000 metro kubikoko edukiera izango du, deribazio-etxola eta udalerriko altako sarrerako lotura barne.
- Halaber, kontuan hartuko da gai honi buruz egindako hirigintza-hitzarmenetan jasotakoa.

Legazpiko Udalari egokituko zaio depositua jartzeko beharrezkoa den lursaila kudeatzea. Hori gorabehera, dagozkion jarduketa-eremu integratuek euren gain hartuko dituzte kasu bakoitzean hornikuntzako eta banaketako sare berriak egitearen kostuak.

III.- Lursailen salerosketarako akordio pribatuen bidez, 40.1 Jarduketa-eremu Integratutik eratorritako hirigintzako eginbeharrak PROMOCIONES ELORTXO SA enpresari zegozkionak, SAIATU SA, ORMAZPEI SL eta LURKIDE HONDALANAK SL enpresei transmititu zitzaizkien.

IV.- Plan Orokorrean aurreikusitako hirigintza-eremuak gauzatzeari lotutako izaera pribatuko obra den arren, egingo den obraren espezifikotasuna eta obra gauzatzeak eta zuzentzeak konplexutasun teknikoa izan dezakeela kontuan hartuta, interes publikoaren mesederako, komenigarria jo da obra gauzatzeko prozesua zuzentzeaz GIPUZKOAKO URAK SA enpresa ardura dadila, berak duelako arlo horretan esperientzia eta baliabide tekniko eta giza baliabide hoberenak. Kontu horretan bat datoz hitzarmen hau sinatzen duten alderdi guztiak.

Esandakoa aintzat hartuz, eta alderdi guztiek hitzarmen hau sinatzeko nahitaezko aritzeko gaitasuna eta ahalmen juridikoa elkarri onartuz, Toki-araubidearen gaietan indarrean dauden Legezko Xedapenen Testu Bateratuaren 111. artikuluan ezarritakoaren arabera eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 4.1.d) artikuluan ezarritakoa betez, honako **HITZARMENA** sinatzea erabaki dute, ondoko klausulen arabera.

KLAUSULAK

LEHENENGOA: Gipuzkoako Urak SA enpresak, nahitaezko lursailak erabiltzeko moduan izango denean, ondorengo konpromisoak hartzen ditu:

- Egindako Gauzatze-proiektuaren egokitasuna berrikustea eta bere egitea.
- Obra zuzendaria, obraren gauzatzeaz arduratuko den zuzendaria eta segurtasun koordinatzailea izendatzea eta haien ordainsariak bere gain hartzea.
- Obra gauzatzeko kostuaren %36,96 bere gain hartzea, Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren eta Legazpiko Udalaren artean sinatutako erabakien eta hitzarmenen arabera. Kontratista-esleipendunari egingo zaizkion ordainketak, ur-depositua egiteko obra kontratatzeke espedientean onartuko diren administrazio-baldintza zehatzen eta baldintza ekonomikoen Agirietan ezarritako moduan egingo dira.

BIGARRENA: Legazpiko Udalak honako konpromisoak hartzen ditu:

- ur-depositua eraikitzea aurreikusten den lursailen erabilgarritasuna eta, beharrezkoak balira, dagozkion akueduktu-zortasunak lortzea.
- lursailen erabilgarritasuna lortzeko egin beharreko gestioetan laguntzea eta ur-depositua martxan jarri arte egin beharko diren izapideak egiten laguntzea.
- Joan den 2012ko apirilaren 27an sinatu zen hirigintza-hitzarmenean jasotakoarekin bat etorri, obraren gauzatzeaz arduratuko den kontratista hautatzea legez ezarritako prozeduraren arabera eta obra egiteko dagokion kontratua sinatzea, gainerako parte-hartzaileei horren berri emanez.
- obraren jarraipena egitea, bai depositua egiteko obrarena bai beharrezkoak izango diren hornikuntzako sareena ere; berak izendatuko dituen udal teknikariek egingo dute lan hori.

HIRUGARRENA.- SAIATU SA, ORMAZPEI SL eta LURKIDE HONDALAK SL enpresek ondorengo konpromisoak hartzen dituzte:

- ur-depositua eraikitzeke obra gauzatzeko kostuaren zati bat finantzatzea, dagokion portzentajearen arabera eta Hitzarmen honen I. Aurrekarian ezarritakoarekin bat etorri. Kontratista-esleipendunari egingo zaizkion ordainketak, ur-depositua egiteke obra kontratatzeke espedientean onartuko diren administrazio-baldintza zehatzen eta baldintza ekonomikoen Agirietan ezarritako moduan egingo dira.

LURKIDE HONDALANAK SL enpresak 76.870,77 € aurreratu ditu, ondorengo lanak egiteke:

- gauzatze-proiektua
- azterketa geoteknikoa,

Horien kostua dagozkion fakturretan geratu da jasota eta aipatu fakturak Legazpiko udaletxean aurkeztu dira.

Aipatu kopuru horretatik -76.870,77 €-, dagozkien portzentajeen arabera, Legazpiko Udalak 37.582,12 € ordainduko dizkio LURKIDE HONDALANAK SL enpresari eta LEGAZPIBERRI SL enpresak 8.540,34 € ordainduko dizkio LURKIDE HONDALANAK SL enpresari, behin agiriak egokitzen jo eta gero.

LAUGARRENA: LEGAZPIBERRI SL enpresak honako konpromisoak hartzen ditu:

- ur-depositua eraikitzeke obra gauzatzeko kostuaren zati bat finantzatzea, dagokion portzentajearen arabera eta Hitzarmen honen I. Aurrekarian ezarritakoarekin bat etorriz. Kontratista-esleipendunari egingo zaizkion ordainketak, ur-depositua egiteko obra kontratatzeke espedientean onartuko diren administrazio-baldintza zehatzen eta baldintza ekonomikoen Agirietan ezarritako moduan egingo dira.

BOSGARRENA.- Legazpiko Udalak eta SAIATU SA, ORMAZPEI SL, LURKIDE HONDALANAK SL eta LEGAZPIBERRI SL enpresek euren gain hartuko dute -dagozkien portzentajeen arabera- ur-depositua egiteko obran eman daitekeen gain-kostua, baldin eta gain-kostu hori kontratistaren zabarkeriari leporatzen ez bazaio.

SEIGARRENA.- Depositoko lehenengo fasea egiteko obra gauzatu eta onartu ondoren, betetzat emango dira LEGAZPIBERRI SL, SAIATU SA, ORMAZPEI SL eta LURKIDE HONDALANAK SL enpresei dagozkien hirigintzako eginbeharrak eta, beraz, Legazpiko Udalak itzuli egingo ditu ezarrita dauden bermeak.

Hitzarmena irakurri ondoren eta adostasuna agertuz, sinatzaileek agiri hau sinatzen dute, bosna ale, hasieran zehaztutako lekuan eta egunean.

Kepa Urzelai Goitia

Iñigo Elozegi Vallejo

Mirari Muguruza Eizagirre

Jon Mikel Murua Uribe-Etxeberria

Jesús M^a Valgañon Gómez

Iñaki Gastañares Sánchez

